Xedapen Orokorrak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARIORDETZA

1120

7/2009 EBAZPENA, otsailaren 25ekoa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, sektore estrategikoetako enpresei laguntza finantzarioa emateko berariazko programa instrumentatu eta ezartzeko Jaurlaritzaren Kontseiluak onartu duen Akordioa argitaratzeko dena.

Jaurlaritzaren kontseiluak 2009ko otsailaren 10ean egindako bileran ondoko berariazko programa instrumentatu eta ezartzeko programa onartzen du, hain zuzen sektore estrategikoetako enpresei laguntza finantzarioa emateko; beraz, zabalkunde egokia izan dezan, honakoa,

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Sektore estrategikoetako enpresei laguntza finantzarioa emateko berariazko programa instrumentatu eta ezartzeko Akordioaren testua, ebazpen honen eranskin gisa doana, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 25a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta
Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JOSÉ LUIS ERREKATXO LABANDIBAR.

Disposiciones Generales

VICEPRESIDENCIA DEL GOBIERNO

1120

RESOLUCIÓN 7/2009, de 25 de febrero, del Director de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, por la que se dispone la publicación del Acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno «por el que se aprueba el establecimiento y la instrumentación de un programa específico de apoyo financiero a empresas de sectores estratégicos».

Habiéndose aprobado por el Consejo de Gobierno, en su sesión celebrada el día 10 de febrero de 2009, el Acuerdo «por el que se aprueba el establecimiento y la instrumentación de un programa específico de apoyo financiero a empresas de sectores estratégicos», y a los efectos de darle la publicidad debida,

RESUELVO:

Artículo único.– Publicar en el Boletín Oficial del País Vasco el texto del Acuerdo «por el que se aprueba el establecimiento y la instrumentación de un programa específico de apoyo financiero a empresas de sectores estratégicos», que figura como anexo a la presente.

En Vitoria-Gasteiz, a 25 de febrero de 2009.

El Director de la Secretaría del Gobierno
y de Relaciones con el Parlamento,
JOSÉ LUIS ERREKATXO LABANDIBAR.

JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN OTSAILAREN 25EKO 7/2009 EBAZPENAREN ERANSKINA

SEKTORE ESTRATEGIKOETAKO ENPRESEI LAGUNTZA FINANTZARIOA EMATEKO BERARIAZKO PROGRAMA INSTRUMENTATU ETA EZARTZEKO AKORDIOA

Krisi finantzarioak mesfidantzazko egoera sortu du kreditu-merkatuetan, eta, ondorioz, likidezia-murrizketak jarduera ekonomiko osoarentzat. Kreditu-murrizketadun egungo egoerak, modalitate guztietan, oso eragiten die euskal enpresei eta, bereziki, sektore estrategiko jakin batzuetakoei.

Ondoren zehaztutako sektore estrategikoetako enpresek finantziazio alor dezaten berariazko programa garatzen du erabaki honek: enplegu-kopurua edo jarduera-bolumena dela-eta, azaroaren 30eko 230/2008 Dekretura, hau da, ete-en egitura finantzarioa egokitzeko laguntza finantzariorako programa garatzeko Dekretura bildu ez diren enpresak, alegia. Akordio honek, batetik, kreditua erdietsi ahal izateko baldintzak eta kredituaren onuradunak ezartzen ditu, eta, bestetik, abalatu beharreko finantza-eragiketen ezaugarriak; eta gainontzeko baldintzei dagokienez abenduaren 30eko 230/2008 Dekretuan ezarritako baldintzak aplikatu beharko dira. Hala ere, berariazko programa hori instrumentatzearren, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak lankidetza-itunak sinatuko ditu, hain justu ere finantza-erakunde kolaboratzaileekin eta elkarren bermerako sozietateekin.

Laguntza finantzarioko programak honek lehentasuna emanen die hauei: kaudimendun eta bideragarri diren proiektuei, enpresaren zeharkako jarduerari eusteari edo enpresaren hornitzaile-kateari eusteari, balio erantsi handiago sortzeari eta, bereziki, enplegua sortzeari eta horri eusteari.

Hortaz, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak proposaturik, Jaurlaritzaren Kontseiluak honakoa

ERABAKI DU:

Lehenengoa.– Sektore estrategikoetako enpresentzako berme-linea bat instrumentatu eta ezartzearena onartzea, betiere erabaki honetan aurreikusitako baldintzekin bat etorriaz. Zenbait modalitatetan, bankuetatiko finantziazioa eskuratu ahal izatea da aipatu linearen helburua, betiere zirkulaziokoaren arloko premiei aurre egiteko, epe laburrerako zorra berritzeko eta epe laburrerako zorra moldatzeko, hots, epe ertainerakoa eta epe luzerakoa egiteko.

ANEXO A LA RESOLUCIÓN 7/2008, DE 25 DE FEBRERO, DEL DIRECTOR DE LA SECRETARÍA DEL GOBIERNO Y DE RELACIONES CON EL PARLAMENTO

ACUERDO POR EL QUE SE POR EL QUE SE APRUEBA EL ESTABLECIMIENTO Y LA INSTRUMENTACIÓN DE UN PROGRAMA ESPECÍFICO DE APOYO FINANCIERO A EMPRESAS DE SECTORES ESTRATÉGICOS

La crisis financiera ha originado una situación de desconfianza en los mercados crediticios y, consecuentemente, de restricciones de liquidez para el conjunto de la actividad económica. La situación actual de restricción del crédito, en todas sus modalidades, afecta en gran medida a las empresas vascas y especialmente a las de determinados sectores estratégicos.

El presente Acuerdo desarrolla un programa específico de apoyo al acceso a la financiación para aquellas empresas de sectores estratégicos que, por su volumen de empleo o de actividad, no puedan acogerse al Decreto 230/2008, de 30 de diciembre, por el que se desarrolla el programa de apoyo financiero para la adecuación de la estructura financiera de las Pymes. El presente Acuerdo se limita a establecer los beneficiarios y las condiciones de acceso al crédito, así como las características de las operaciones financieras a avalar, remitiéndose para el resto de condiciones a los requisitos establecidos en el referido Decreto 230/2008, de 30 de diciembre. No obstante, a los efectos de instrumentar el presente programa específico, el Departamento de Hacienda y Administración Pública suscribirá los oportunos convenios de colaboración con las sociedades de garantía recíproca y las entidades financieras colaboradoras.

Este programa de apoyo financiero priorizará la financiación de proyectos solventes y viables, el mantenimiento de la actividad indirecta de la empresa o de su cadena de proveedores, la generación de mayor valor añadido y, fundamentalmente, la creación y/o mantenimiento del empleo.

Por todo ello, a propuesta de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, previa deliberación, el Consejo de Gobierno adopta el siguiente

ACUERDO

Primero.– Aprobar el establecimiento y la instrumentación de una línea de garantías a favor de empresas de sectores estratégicos, de conformidad con las condiciones y requisitos previstos en el presente Acuerdo. Esta línea tendrá como finalidad permitir el acceso a la financiación bancaria, en distintas modalidades, para la cobertura de las necesidades de circulante, la renovación de la deuda a corto plazo y la adecuación de deuda a corto plazo en deuda a medio y largo plazo.

Bigarrena.– Erabaki honetan zehaztutako finantziazio-linea eta bermeak honako enpresak erabili ahal izanen dituzte: abenduaren 30eko 230/2008 Dekretuan aurreikusitako finantziazio-lineara bildu ezin eta honako baldintzak betetzen dituztenak:

– Egoitza ez eze jarduera nagusia ere, Euskal Autonomia Erkidegoan izatea.

– Zuzenean 250 langiletik gora enplegatzea.

– Beste enpresa batek edo batzuk % 25eko eta hortik gorako partaidetza zuzena edo zeharkakoa badute, egoitza ez eze jarduera nagusia ere, EAEn izatea.

Hirugarrena.– Jarduera ekonomikoko sektore guztiei dago zabalik finantziazio-linea hau, eta hauek ezin daitezke izan linea horren onuradun: sozietate era erakunde publikoak, irabazte asmorik gabeko entitateak, eta finantzen, erakuntzaren, higiezinen, energiaren, siderurgiaren eta garraioen sektoreak.

Halaber, delako enpresak, batetik, honako baldintza bete beharko du: 2004/C244/02 Batzordearen Komunikazioan ezarritakoaren arabera ez egotea krisi-egoeran (2004ko urriaren 1eko EBAO), eta, bestetik, ordainduak izan beharko ditu Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Aldundiekiko obligazioak.

Laugarrena.– Guztiarekin ere, erabaki honetan jasotako finantziazio-lineara eta bermeetara sarbidea izateak berekin dakar onuradunak enpleguari eusteko konpromiso formala. Ildo horretan, abalatutako finantza-eragiketak indarrean dirauela, onuradunak ezin izango du planteatu honakorik: lan-kontratuak suntsitzeko, enplegu-erregulazioko espedienterik alegia; nahiz eta lan-agintaritzaren justifikatutako kausak direla-eta prozedura hura onartu ahal izan den, lan-kontratuak aldi baterako suntsitzeko. Aldez aurretiko amortizazioaren bitartez eragiketari uko egiten dionean izan ezik, aipatu obligazioa ez betetzeak, laguntza itzultzeko espedientea irekitzea ekarriko du.

Bosgarrena.– Maileguen ezaugarriak honakoak dira:

a) Abalatutako eragiketa bakoitzeko zenbateko gutxienekoa 600.000 eurokoa izango da.

b) Abalatutako eragiketa bakoitzeko zenbateko gehienekoa 1.500.000 eurokoa izango da. Talde bat osatzen duten enpresei dagokienez, Merkataritza Kodearen 42. artikuluak zehazten duenez, enpresa-taldearentzako zenbateko gehienekoa ez da izango 4.500.000 eurotik gorakoa; eta, beharrezkoa bada, abenduaren 30eko 230/2008 Dekretuaren arabera emandako maileguak ere sartuko dira aipatutako zenbatekoan.

c) Epea: urte 1etik 3 urtera. Maileguetan tronkoaren gabealdi gehienekoa urte bateko izango da. Mugaegunetarutako epeka gauzatuko dira hiruhilabeteko interesak eta amortizazioa.

Segundo.– Podrán acceder a las garantías y a la línea de financiación contempladas en el presente Acuerdo las empresas que, no habiendo podido acogerse a la línea de financiación prevista en el Decreto 230/2008, de 30 de diciembre, cumplan los siguientes requisitos:

– Que estén domiciliadas y desarrollen su actividad principal en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

– Que empleen de forma directa a más de 250 trabajadores.

– Que cuando se hallen participadas directa o indirectamente en un 25% o más por otra empresa o conjuntamente por varias de ellas, éstas estén domiciliadas y desarrollen su actividad principal en la CAE.

Tercero.– Esta línea de financiación estará abierta a todos los sectores de actividad económica quedando excluidas como beneficiarios los entes y sociedades públicas, las entidades sin ánimo de lucro y las empresas pertenecientes a los sectores financiero, construcción e inmobiliario, energético, siderúrgico y transporte.

Asimismo, será requisito para acogerse que la empresa no esté en situación de crisis, según lo establecido en el Comunicación de la Comisión 2004/C244/02 (DOUE de 1 de octubre de 2004), así como que esté al corriente en el pago de sus obligaciones con las Diputaciones Forales y la Seguridad Social.

Cuarto.– En todo caso, el acceso a las garantías y a la línea de financiación contempladas en el presente Acuerdo conllevará el compromiso formal del beneficiario a mantener el empleo. En tal sentido, durante la vigencia de la operación financiera avalada, el beneficiario no podrá plantear un expediente de regulación de empleo con el fin de proceder a la extinción de contratos de trabajo, aunque siempre que sea por causas justificadas ante la autoridad laboral, pueda admitirse dicho procedimiento con el fin de proceder a la suspensión temporal de contratos de trabajo. El incumplimiento de la referida obligación dará lugar, salvo en el caso de que el beneficiario renuncie a la operación mediante la amortización anticipada de la misma, a la incoación del correspondiente expediente de reversión de la ayuda.

Quinto.– Las características de los préstamos serán las siguientes:

a) La cuantía mínima por operación avalada será de 600.000 euros.

b) La cuantía máxima por beneficiario avalado será de 1.500.000 euros. En el caso de empresas que formen grupo, según se define en el artículo 42 del Código de Comercio, la cuantía máxima agregada para el conjunto de las empresas de ese grupo no podrá superar la cifra de 4.500.000 euros, incluyendo, en su caso, los préstamos otorgados al amparo del Decreto 230/2008, de 30 de diciembre.

c) Plazo: de 1 a 3 años. El período máximo de carencia del principal en los préstamos, 1 año. La amortización e intereses serán trimestrales por períodos vencidos.

d) Aplikatuko den interes-tipoa Euribor-a izango da, gehi % 1,50 marjina, hiru hilabeterik behin berraztertu daitekeena. Esandakoaren ondorioetarako, Euribortzat honakoa hartuko da: Euribor=, Reuter-ekoa, (Act/360) oinarria, pantailaren bitartez lortutako bankuen arteko interes-tipoa, edo hori desagertzen bada, informazio bera ematen duen beste pantaila baten bitartez, betiere hiru hilabeterako gordailuentzat, eragiketaren dataren aurreko egun baliodunean edo, kasua bada, berrazterketaren datan. Ez biribiltzerik onartuko.

e) Ez da aplikatuko inolako komisiorik edo gastu osagarririk.

f) Mailegu-hartzaileak aldez aurretik amortizatu edo ezeztatu dezake mailegua edo kreditua, kosturik gabe.

Seigarrena.– Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren agindu baten bidez egingo da finantzazio-linea honetarako sarbidea izateko deialdia, zeinetan honakoak jasoko diren: erabilgarri diren baliabideen guztizkoa, eskabideak aurkezteko epea eta lekua, prozedurako gainontzeko alderdiak, eta deialdian laguntzaile diren finantza erakundeak eta elkarren bermerako sozietateak.

Zazpigarrena.– Erabaki honetan aurreikusi gabekoari dagokionez abenduaren 30eko 230/2008 Dekretuko xedapenak aplikatuko dira.

Zortzigarrena.– Erabaki hau gauza dadin, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Elkarren Bermerako Sozietateen arteko ituna formalizatzearena onartzea.

Bederatzigarrena.– Erabaki hau garatzeko beharrezko diren xedapenak emateko ahalmenak ematea Ogasun eta Herri Administrazio sailburuari.

Hamargarrena.– Erabaki honen testua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.»

d) El tipo de interés aplicable será el Euribor más un margen de 1,50%, revisable trimestralmente. A estos efectos, se entenderá por Euribor, el tipo de interés interbancario obtenido a través de la pantalla Euribor=, de Reuter, base (Act/360), u otra pantalla que suministre la misma información en el caso de que desaparezca la anterior, para depósitos a tres meses, el último día hábil anterior a la fecha de la operación o a la fecha de revisión, en su caso. No será admitido redondeo alguno.

e) No se aplicará ningún tipo de comisión o gasto adicional.

f) El prestatario podrá cancelar o amortizar anticipadamente el préstamo o crédito sin coste alguno.

Sexto.– La convocatoria para acceder a esta línea de financiación se realizará por Orden de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, que precisará el importe total de los recursos disponibles, el plazo y lugar para la presentación de solicitudes y demás aspectos procedimentales, y que incluirá la relación de las Sociedades de Garantía Recíproca y Entidades Financieras colaboradoras en la convocatoria.

Séptimo.– En todo lo no previsto en el presente Acuerdo, serán de aplicación las disposiciones del Decreto 230/2008, de 30 de diciembre.

Octavo.– Aprobar la formalización del convenio entre la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y las Sociedades de Garantía Recíproca para la materialización del presente Acuerdo.

Noveno.– Facultar a la Consejera de Hacienda y Administración Pública para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo del presente Acuerdo.

Décimo.– Publicar el texto del presente Acuerdo en el Boletín.»